# SONDIKAKO UDALEAN
## hausnarketa estrategikoa

# Reflexión estratégica en el
# MUNICIPIO DE SONDIKA

BULTZATU PROGRAMA
PROGRAMA BULTZATU **2006**

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Saila
Departamento de Innovación y Promoción Económica

BILBAO Metropoli-30



# Aurkezpena
# Prólogo



**Oraingo honetan,** Sondikari buruzko "Hausnarketa Estrategikoa" argitaratu dugu, Bizkaiko beste udalerri batzuetan egin den legez. Hasteko, zorionak eman nahi dizkiet lagundu duten pertsona guztiei, egindako lan bikainagatik; izan ere, seguru nago lan honek etorkizun hurbilean sondikoztar guztien bizitza hobetzen lagunduko duela.

Hausnarketa honen helburua da oinarrizko ekintzak bultzatzea, udalerrien garapen ekonomiko handiagoa eta hobea ahalbidetzeko, hazteko dituzten berezko aukerak identifikatuz. Udalerriaren une honetako argazki bat bezalakoa da, eta oinarri legez erabil daiteke, dituen aukerez ohartzeko eta Sondika etorkizunean nondik haz daitekeen antzemateko.

Sondikari buruzko azterketa honetan, udalerriko industria-sarea mantentzeaz eta handitzeaz hitz egiten da, eta, era berean, industriari eta teknologiari lotutako gune ekonomiko estrategikoa dela nabarmentzen da. Halaber, eta hala izan behar zuen, bikain komunikatuta dagoela esaten da, izan ere, Aireportutik, Teknologi Elkartegitik eta Txorierriko korridoretik hurbil dago.

Beraz, argi dago Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak bultzatu eta Bilbao Metropoli-30 Elkartearen aholkularitza eta zuzendaritzapean egindako Hausnarketa Estrategiko honekin, Sondikak, hemendik aurrera, etorkizunerako erabakiak hartzea ahalbidetuko dion oinarrizko ezagutza daukala; izan ere, nire ikuspuntutik, Hausnarketa Estrategikoak prozesu baten hasiera adierazten du eta horren ondoren plangintza estrategikoa etorriko da, zeinetan udalerriko proiektu nagusiak zehaztuko diren.

Zuzentzen dudan Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailetik, beti saiatzen gara gure aletxoa jartzen, gure udalerriei beren oraina eta etorkizuna hobetzen laguntzeko. Bihotz-bihotzez espero dut Hausnarketa Estrategiko honi esker Sondika etorkizun oparoago horretara hurbiltzea. Bidea marraztuta dago. Orain, irmotasunez egin behar dugu aurrera bide horretan.

**Ricardo Barainka,**
Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza
eta Ekonomi Sustapeneko diputatua

**Se publica ahora** esta "Reflexión Estratégica" sobre el municipio de Sondika, al igual que se ha hecho con otros municipios de Bizkaia. Felicito, antes de nada, a todas las personas que lo han hecho posible, por este magnífico trabajo que estoy seguro de que servirá para mejorar la vida en un futuro cercano a cualquier Sondikatarra.

El objetivo de esta reflexión es impulsar todas las actuaciones esenciales que permitan un mayor y mejorado desarrollo económico de los municipios mediante la identificación de sus potencialidades propias de crecimiento. Es como una fotografía del municipio en este instante que sirve de base para detectar sus potencialidades presentes y para intuir por dónde puede crecer Sondika en el futuro.

En las conclusiones de este estudio sobre Sondika se habla del mantenimiento e incremento del tejido industrial de este municipio, y se destaca su carácter de enclave económico de carácter estratégico vinculado a la industria y a la tecnología. Igualmente, y no podía ser de otra manera, se hace mención a su excelente comunicación, gracias a su cercanía al Aeropuerto, al Parque Tecnológico y al corredor del Txorierri.

Está claro, por tanto, que con esta Reflexión Estratégica impulsada por el Departamento de Innovación y Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia y realizada bajo el asesoramiento y dirección de la Asociación Bilbao Metropoli-30, el municipio de Sondika cuenta a partir de ahora, con el conocimiento básico que le permita adoptar las decisiones de futuro porque, desde mi punto de vista, la Reflexión Estratégica señala el inicio de un proceso que da paso al lanzamiento de la planificación estratégica, en la que se concretarán los principales proyectos del municipio.

Desde el Departamento de Innovación y Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia que dirijo, siempre intentamos poner nuestro granito de arena para colaborar con nuestros municipios y mejorar en lo posible su presente y su futuro. Espero de todo corazón que esta Reflexión Estratégica logre acercar a Sondika a ese futuro más próspero. El camino está trazado. Nos queda ahora caminar con firmeza sobre él.

**Ricardo Barainka,**
Diputado de Innovación y Promoción Económica
de la Diputación Foral de Bizkaia



# Aurkezpena
# Prólogo



**Gure udalerriaren gaur egungo** eta etorkizuneko egoerari buruzko zenbait jardunaldi egin ondoren, "Hausnarketa Estrategiko" hau egin dugu. Hausnarketa Estrategikoa egiteko prozesuan, gizarte, kultur, kirol, enpresa eta politika arloko eragileek zeresan erabakigarria izan dute, eta XXI. mendeko Sondika lortzeko lehenengo urratsa izango da.

Hausnarketa bateratua izan da. Gure udalerriaren ahultasunak eta sendotasunak aztertu dira, eta, horietan oinarrituta, Sondika udalerri erakargarritzat hartu da, besteak beste, arrazoi hauengatik: azpiegitura garrantzitsuetatik (Aireportua, Txorierriko korridorea, Zamudioko Teknologi Elkarteagia) hurbil dago; espazioa dauka jarduera ekonomikoak garatzeko eta industria, etxebizitza edo ekipamendu erabileretarako; eta inguru erakargarrian dago, izan ere, beste elementu batzuen artean, hiri-paisaia zaindu eta kalitatekoa dauka, herritarrak elkartzeko espazioak ditu, kalitateko zerbitzu publikoen eskaintza dauka, berdegune handiak ditu eta kirol eta kultur arloko ekipamenduak eta azpiegiturak dauzka.

Alkatea naizen aldetik, hausnarketa honen aurkezpena ilusio-iturri da; izan ere, gure udalerriaren etorkizunerako ikuspegia definitzen du, bizitzeko eta lan egiteko tokia, eta horretan oinarrituko gara etorkizuneko belaunaldientzat nahi dugun herria finkatzeko.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet "Hausnarketa Estrategiko" hau egiten lagundu duten eragile guztiei, egindako ahaleginagatik eta eskainitako dedikazioagatik. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko Berrikuntza eta Ekonomi Sustapen Sailak eta Bilbao Metropoli-30 Elkarteak eskainitako laguntza ere eskertu nahi dut.

**Gorka Carro Bilbao**
Alcalde de Sondika

**Tras la realización de una serie de jornadas** sobre la situación actual y futura de nuestro municipio, donde la participación y colaboración de agentes sociales, culturales, deportivos, empresariales y políticos ha sido decisiva, se ha elaborado esta "Reflexión Estratégica", la cual será un primer paso para conseguir el Sondika del siglo XXI.

Ha sido una reflexión conjunta, donde se han estudiado las debilidades y fortalezas de nuestro municipio y que ha identificado a Sondika como un municipio atractivo, entre otros aspectos por su cercanía geográfica a importantes infraestructuras (Aeropuerto, Corredor del Txorierri, Parque Tecnológico de Zamudio), por la disponibilidad de espacio para el desarrollo de actividades económicas y usos de carácter industrial, vivienda o equipamientos y por el atractivo que ofrece nuestro entorno y que radica en elementos como un paisaje urbano cuidado y de calidad, espacios de encuentro cívico, oferta de servicios públicos de calidad, grandes zonas verdes y equipamientos e infraestructuras deportivas y culturales.

Como Alcalde, la presentación de esta reflexión es motivo de ilusión en la medida en que define la visión de futuro de nuestro municipio, un lugar para vivir y trabajar y en ello nos basaremos para consolidar el pueblo que queremos para generaciones futuras.

Quiero finalizar agradeciendo el esfuerzo y dedicación a todos los agentes que han colaborado en la realización de esta "Reflexión Estratégica" y la importante colaboración prestada por el Departamento de Innovación y Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia y de Bilbao Metropoli-30.

**Gorka Carro Bilbao**
Sondikako Alkatea

© Ayuntamiento de Sondika
Helbidea/Dirección: Goronda Gane bidea 1
Tel.: 94 453 50 10
Fax: 94 471 03 24
www.sondika.org

Lege gordailua/Depósito legal: